

LUA

2022ko uztaila • 28. zenbakia

Etxean bezala

Eguneko arreta zerbitzua martxan dago. Autonomia eta harremanak indartzea du helburu.



GERTUTIK

Joxe Lasa aguazilak erretiroa hartu du: "Erabat eskertua nago Legorretari"

2

UDALA

Udako aisialdiko eskaintza osatu du udalak, eta nerabeentzako ekintzak ere antolatu ditu

4

BERDINTASUNA

'Bizigarri' diagnostiko aitzindaria, herriko LGTBI+ pertsonen egoera zein den jakiteko

10



"Legorretak badauka
plus hori: beti
egon da jendea
laguntzeko prest"

40 urtez herriko aguazil izan ondoren, erretiroa hartu berri du Joxe Lasak (Legorreta, 1959). Aguazil postua behin-behinean ordezkatu da jada, eta laster lehiaketara aterako da.

Zer moduz erretiroa hartu ondorengo lehen aste hauek?

Ondo. Hasieran oporretan bezala nengoen, baina joan da sentsazio hori, eta jabetu naiz aldaketaz. Banekien ez neukala aspertzeko arriskurik. Oraingoaz ondo sentitzen naiz, eta gustura: egunak beteak ditut, eta modua daukat lehen egiten ez nituen gauza batzuk egiteko.

Hasi zinenetik utzi duzun arte asko aldatu da zure lana?

Ikaragarri. Hasierakoak ez du zerikusi handirik oraingoarekin. Lehen, gehientsuena garbiketa zen. Ni Joxe Ramon Amenabarro *Txorro*-ren ordezkari sartu nintzen; hark atera zuen lanpostua, baina, beste lana atera zitzaionean, libre geratu zen postu hau, eta behin-behinean sartu nintzen. Bakarra nintzen: garbiketa kontuak, kontagailuen irakurketa, uraren kloroa... Udalak baliabide gutxiago zituen: adibidez, ez zeukan ibilgailurik, eta nire kotxearekin ibiltzen nintzen.

Orain beste gauza bat da. Herriak edertzen joan dira, zerbitzuak gehitzen, eta, hori gertatu den heinean, gure lanak gehitu dira. Langile kopurua ere bai: lehen bakarra zen, eta orain, hiru. Eta urte sasoi batzuetan behar izaten dira laguntza gehigarriak.

Teknologia berriek izan dute eraginik zuen lanean?

Pentsa, ni sartu nintzenean udalak ez zuen ordenagailurik: idazteko makinak zeuden, ez zegoen fotokopiagailurik, aktak eskuz hartzen ziren... 40 urtean asko aldatu dira gauzak teknologia aldetik.

Herria bera ere aldatu da?

Herrigunea askoz erosoagoa da orain: dena laua da, eta horrek erraztu egiten du gauza. Mantentze lanetan, bakarrik nengoen, lehen erdigunean zentratzen zen zerbitzua, eta orain zabaldu egin da: baserri inguruetara ere zabaldu da udalaren lana, urtean bi aldiz gutxienez baserri bideak garbituta, adibidez. Zerbitzua asko zabaldu da. Uste dut jendeak nabaritutako duela.

Eta estimatuko duela.

Bai. Jakina, Legorreta ezin da konparatu herri handi batekin. Hain mugatuak izanda, agian udalak ezin dio behar zaion guztiari erantzun. Uste dut dauzkan baliabideen arabera lanak kontuan hartzekoak direla.

Nola gogoratzen dituzu 1983ko uholdeak? Hasi berria zinen...

Lanean sartu berria nintzen, eta, zorionez, ez da gehiago gertatu halakorik. Ikaragarria izan zen. Baina beti ateratzen dira gauza positiboak, eta azpimarragarria da jendearen erantzuna. Legorretarren erantzuna sinestezina izan zen: leku guztietara iritsi ginen, Ajoain-Patxikone ingurutik Errekalde alderaino, denak palarekin, mangerekin... Ikustekoa izan zen. Udalaren baliabideak oso urriak ziren, eta beste herrietan ere ezin genituen eskatu, gainerakoetan ere izan zirelako uholdeak. Jendeak zeuzkan tresnak ekarri zituen. Lankidetzak handia izan zen herrian. Oso oroimen ona daukat horrekin.

Elurteak ere izango ziren.

Bai. Urte batean egon ginen lau-bost egun elurra joan gabe. Orduan ez geneukan baliabiderik baserri bideak garbitzeko, baina kalea garbitu genuen, kamioi bat ekarrita. Jendearen erantzuna izan zen orduan ere. Jendea mugitu egiten da horrelako egoeretan. Legorretak badauka plus hori: azkenaldian errekarrekin arazoak izan ditugunean ere, beti egon da jendea laguntzeko prest. Hori berme bat da: herria ondo joango den bermea.

40 urtean anekdota asko pilatuko zenituen.

Korputsetan, ardoa ematen dugun garaian, gauza bitxiak ikusten dira. Gogoratzen naiz nola etorri zen legorretar bat pixontzi batekin ardo bila.

Toki kuttunak ere izango dituzu herrian.

Etkezaretan auzoan jaio nintzen, eta kuttuna dut. Hobeto gestionatu zitekeen, baina uste dut nahiko txukun dagoela. Legorreta ezagutzen ez duen norbait etorri izan denean, esan izan dit auzo berezia dela, herriari ematen diola xarma. Leku kuttuna da niretzat. Mendi inguruan, nire ama Legorretazarrekoa izanda, hara jotzen dut: Santa Marinako bidea, Burnikurutzeta ingurua... Gaur egun, denok dakigunagatik, are gehiago Burnikurutzetara. Baserri auzo guztiek ematen diote balio erantsi bat Legorretari.

Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Lagun baten ordezkari sartu nintzen, eta ez nuen pentsatzen hemen jubilatuko nintzenik. Hemen egoteak ahalbidetu dit beste gauza batzuk egitea (ikasketa batzuk egin ditut, adibidez). Erabat eskertua nago Legorretari. Momentu txarrak ere izan ditut, baina horiek ahazten saiatzen naiz; egia esan behar bada, momentu onak izan dira %95. Eta horrekin gertatzen naiz.



Udako aisia, nerabeentzat ere bai

Udalak osatu egin du aisialdiko eskaintza, eta nerabeentzako jarduerak ere antolatu ditu. Guztira, 157 haur eta gaztetxok parte hartu dute, eta udalak hemeretzi begirale kontratatu ditu.

Berritasunak izan dira aurten udako aisialdiko eskaintzan: ohi bezala, Haur eta Lehen Hezkuntzako umeentzako udalekuak antolatu ditu udalak, eta, horrekin batera, 12-17 urte bitarteko gaztetxoentzako jarduerak ere bai.

Udalak berak sumatua zuen hutsunea adin horietako nerabeentzako eskaintzan, eta haiekin egindako parte-hartze prozesuan gaztetxoek proposatu zuten era horretako eskaintza bat izatea herrian. Eskaria jasota, horri bide ematea erabaki du udalak.

Guztira, 157 haur eta nerabek parte hartu dute udako aisialdiko eskaintzan: 102 haurrek eman dute izena udalekuetan, eta, ohi bezala, astelehenetik ostiralera izan dira udalekuak, goizez;

bestalde, nerabeentzako eskaintzan 52 gaztetxok eman dute izena, eta astean bi egunez izan dituzte ekintzak.

Oinherri herri hezitzaileen sareko kidea da Legorreta, eta harekin eta Arremantz kooperatibarekin egindako prozesu baten ondoren jarri da martxan gaztetxoentzako aisialdiko eskaintza. Izan ere, Oinherriren helburuetako bat da herrietan proposamen hezitzaileak lantzea haurren eta nerabeen hezkuntzan eta aisialdian, eta, helburu horrekin, hainbat



Ocio estival, también para adolescentes

Este año el Ayuntamiento ha completado la oferta de ocio estival. Como viene siendo habitual, se han organizado colonias de verano para niños y niñas de Infantil y Primaria, y, como novedad, también se han organizado actividades dirigidas a jóvenes de 12-17 años. El propio Ayuntamiento había detectado esa carencia, y en un proceso participativo con los propios jóvenes se propuso una oferta de este tipo, donde han realizado diferentes deportes y salidas.

En las colonias han participado un total de 102 niños y niñas, mientras que en la oferta para los jóvenes se han inscrito 52 adolescentes. El Ayuntamiento ha contratado a diecinueve monitores para desarrollar esas actividades.

lan jarri dira martxan herriko umeekin eta nerabeekin; hain zuzen ere, nerabeekin egindako saioetan proposatu zen horrelako eskaintza bat martxan jartzea, eta udalak aurtan bertan hastea erabaki du. Hainbat jarduera egin dituzte nerabeek: batetik, hainbat kirol probatzeko aukera izan dute, eta, bestetik, hainbat irteera egin dituzte (Zumaia, Pasaia, Baliarrain, Larritz, Iruñea, Lekeitio...). Udalaren asmoa da bide horretan jarraitzea umeekin eta gaztetxoekin, aisialdia eta hezkuntza uztartzeko jardueretan.

Udalak hemeretzi begirale kontratatu ditu udako eskaintzarako: hamalau begirale aritu dira Haur eta Lehen Hezkuntzako umeekin, eta bost nerabeekin. Berritasun bat izan da aurtan begiraleen prestakuntzan: Oinherri sareko eta UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide da Legorreta, eta bi eragile horien eskutik prestakuntza espezifikoa jaso dute Legorretako begiraleek, haurren parte-hartzearen eta euskararen erabileraren harira.



EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA, AUTONOMIA ETA HARREMANAK SENDOTZEKO

Maiatzetik irekita dago egunean zehar erabiltzeko arreta zerbitzua: helburua da egoera zaurgarrian dauden herri-tarrei eguneroko zerbitzua ematea, betiere haien autonomiari eutsiz. Besteak beste, tailerrak eta bazkariak ematen dituzte zentroan.

Legorretako Udalak maiatzaren 30ean ireki zuen Eguneako Arreta Zerbitzua, Kale Nagusi-ko 8. zenbakian daukan lekolean. Hamabi lagunentzako lekua du, eta hasieratik izan du harrera ona: arratsalde batzuetan jada hamabi lagun egoten dira zerbitzuan, eta bazkaltzen, dozena erdi lagun.

NORENTZAT DA?

Menpekotasun egoeran edo arriskuan dauden pertsonak joan daitezke, edo udaleko Gizarte Zerbitzuek egokitzen baloratzen duten edozein herritar.

ZER ESKAINTZEN DIE ERABILTZAILEEI?

Zerbitzuaren helburua da erabiltzaileek ohiko bizimoduari eustea ahalik eta gehien: ohiko bizilekuan jarraitzea, ahalik eta autonomiarik handiena izatea, haien gaitasunak indartzea... Ez da erabiltzailea bere eremutik ateratzeko zerbitzua. Kontrakoa: helburua da herriko komunitatean integratzea, bakar-dadeari aurre egitea, eta autonomia lantzea.

ZER ESKAINTZEN DIE FAMILIEI EDO ZAINTZAILEEI?

Batetik, atsedena, beren ardurapean duten pertsona tarte batean zentroan egongo baita. Bestetik, aholkularitza eta informazioa, erabiltzaileen bizi kalitatea hobetze aldera.

ZER JARDUERA EGITEN DIRA?

Helburua denez erabiltzaileen autonomia indartzea, hainbat tailer egiten dituzte zentroan: memoria lantzeko, harremanak indartzeko, osasun fisikoa bultzatzeko, albisteen inguruan hausnartzeko, aisialdia bultzatzeko... Horiekin batera, bazkaria egin daiteke zentroan bertan —Insausti jatetxeak prestatzen du—, eta atsedean hartu.

ZEIN DA ORDUTEGIA?

Zentroa 11:30etik 17:30era dago irekita, astelehenetik ostiralera. Hau da eguneko antolaketa: 11:30etik 13:30era, goizeko tailerra; 13:30etik 15:30era, bazkaria eta atsedena; eta 15:30etik 17:30era, arratsaldeko tailerra. Zerbitzua urte osoan egongo da zabalik, hiru garaitan izan ezik: Pazko Astea, abuztuan, eta abenduaren 24tik urtarrilaren 6ra bitartean.



JOAN DAITEKE ORDU EDO EGUN BATZUETAN?

Bai: ez dago zertan egunero edo 11:30etik 17:30era joan. Malgua da zerbitzua: aukera dago astean egun batzuetan joateko, edo egunean ordu batzuetan. Bertan bazkaldu nahi dutenek ere ez dute egunero geratu beharrik, baina, bazkaltzen geratu nahi izanez gero, gutxienez astean bitan taileurretan parte hartu behar da.

ZENBAT ORDAINDU BEHAR DA?

Zerbitzuaren kostua desberdina izango da erabiltzailearen diru sarreraren eta zentroan egiten duen denboraren arabera. Adibidez, ordutegi osoko zerbitzua hartuz gero, bazkaria barne, 3 euro eta 10 euro arteko kostua du zerbitzuak, errenta-mailearen arabera.

NON EMAN BEHAR DA IZENA?

Udaleko Gizarte Zerbitzuekin jarri behar da harremanetan, bide hauetatik: telefonoz, 943-08 52 90 zenbakian; posta elektronikoz, gizarte@legorreta.eus helbidean; aurrez aurre, aurretik ordua hartuta.

Servicio de Atención Diurna, para fortalecer la autonomía y las relaciones

El Ayuntamiento abrió el pasado 30 de mayo su Servicio de Atención Diurna en el local sito en el número 8 de Kale Nagusia. Tiene capacidad para doce personas y ha tenido una buena acogida desde el principio, ya que hay tardes en las que hay doce personas, y media docena durante la comida.

¿A QUIÉN VA DIRIGIDO?

Personas en situación o riesgo de dependencia, o cualquier persona que los Servicios Sociales Municipales consideren oportuno.

¿QUÉ OFRECE A LAS PERSONAS USUARIAS?

El objetivo del servicio es que las personas usuarias mantengan al máximo su vida habitual: permanecer en su domicilio habitual, tener la mayor autonomía posible, reforzar sus capacidades...

¿QUÉ OFRECE A LAS FAMILIAS O PERSONAS CUIDADORAS?

Por un lado, el descanso; por el otro, asesoramiento e información.

¿QUÉ ACTIVIDADES SE REALIZAN?

Se realizan talleres de memoria, de relaciones, de salud física, de reflexión sobre las noticias, de ocio... Pueden ir acompañados de una comida en el propio centro y de un descanso.

¿CUÁL ES EL HORARIO?

El centro está abierto de 11:30 a 17:30 de lunes a viernes. La organización del día es el siguiente: de 11:30 a 13:30, taller de la mañana; de 13:30 a 15:30, comida y descanso; y de 15:30 a 17:30, taller de tarde. El servicio permanecerá abierto todo el año, excepto durante la Semana de Pascua, el mes de agosto y del 24 de diciembre al 6 de enero.

¿SE PUEDE IR ALGUNAS HORAS O DÍAS?

El servicio es flexible, con posibilidad de acudir unos días a la semana o unas horas al día. Las personas que quieran comer en el centro tampoco tienen que quedarse todos los días, pero si quieren quedarse, se debe participar en los talleres al menos dos días a la semana.

¿CUÁNTO HAY QUE PAGAR?

El coste del servicio varía en función de los ingresos de la persona usuaria y del tiempo que permanezca. Por ejemplo, el servicio en horario completo, incluida la comida, supone un coste de entre 3 euros y 10 euros, dependiendo del nivel de renta.

¿DÓNDE INSCRIBIRSE?

Se debe contactar con los Servicios Sociales: por teléfono, 943-08 52 90; por correo electrónico, gizarte@legorreta.eus; presencialmente, con cita previa.

"Bakardadeari buruzko sentsibilizazioa falta da"

Legorreta 2030 plan estrategikoan jasotako proiektua da Herria Bidelagun, aukeratu gabeko bakardade egoeran dauden herritarrei laguntzeko helburua duena. Apirilaz geroztik, proiektu horretan lanean dabil lanire Ugarte psikologoa (Zumarraga, 1992). 2023ko uda bitarte arituko da lanean

Herria Bidelagun proiektua jendaurrean aurkeztu zenetik, diagnostiko kualitatiboa egiten aritu zara. Uste duzu legorretarren artean badagoela bakardadearen inguruko kontzientziarik?

Legorretarrak jakitun dira bakardadea gizarteko errealitatea dela, baina ez dute egin haren inguruko hausnarketa sakonik. Hausnarketa egin dutenek inguruan dituzte egoera horretan dauden pertsonak, eta, nolabait, gertuko bat bakarrik egoteak dakarren lanari buruz egin dute gogoeta, zaintzailearen roletik.

Bakardade sentimendua beti existitu bada ere, egoera horri erreparatzea falta da

agian, bakarrik sentitzea zer izan daitekeen pentsatzea.

Sentsibilizazio falta handia sumatu dut diagnostikoa egitean. Gehienek bi arrazoiengatik erreparatzen diote: zaintzaileak direlako edo gertuko bat bakarrik dagoelako. Askok ez diote erreparatzen gizarteko gaitz honi.

Zer ondorio atera dituzu lehen diagnostikotik?

Ondorio nagusia sentsibilizazio falta da. Zaila egiten zaigu ulertzea pertsona batzuk, nahiz eta jendez inguratuta egon, bakarrik sentitzen direla; era berean, zaila egiten zaigu identifikatzea pertsona horiek zer premia izan ditzaketen. Gainera, bakardadea gizarteko sektore konkretu batekin lotzen da, eta minimizatu egiten dira izan ditzakeen albo ondorioak. Gaitz honi erreparatzeko, ikusgarri egin behar dugu; hori da erronka handiena.

Bestalde, galdetutako herritarren %90ek esan dute ez luketela jakingo zer esan bakarrik dagoen pertsona bati, herri txikia izanik ez luketelako kuxkuxero itxura eman nahi. On-

dorioz, bakardadearen inguruko tabuak landu behar dira, eta egoerak ikusgarri egin.

Uste duzu estigma handia dagoela bakardadearen inguruan?

Orokorrean, bai. Hala nahi izan gabe bakarrik dagoen pertsona bati buruz hitz egitean, oro har, beti profil bera datorkigu burura, eta errealitatea oso desberdina da. Eta bakardade sentimenduak ez du adinik.

Bi soslai bilatzen dira proiektuan parte hartzeko: bakarrik dauden herritarrek eta haiei laguntzeko prest daudenak, 'bidelagun' figura beteko luketen boluntarioak. Nola iritsi batzuegana eta besteengana?

Komunitate lana ezinbestekoa da. Bakarrik dauden pertsona asko udaletik identifikatu daitezke (erroladak, laguntzak...), baina modu eraginkorrean komunitatearen laguntza da. Bizilagun gutxi ditu Legorretak, eta denek ezagutzen dute elkar. Herritarrek erraz detekta dezakete bakarrik dagoen pertsona bat; harengana jo, proiektuaren berri eman, eta, horrela, pertsona hori guregana etor daiteke. Bestalde, bidelagunek akonpainamendu rola egingo lukete; beraz, ezinbestekoa da konpromisoa eta gogoia izatea. Nahiz eta komunitaterako lana den, hazkuntza pertsonala dakarren lana da, gizartean modu aktiboan parte hartzearen ondorioz. Haiengana hurbiltzeko, ezinbestekoa da sentsibilizazioa asko lantzea eta herritarrek programa ezagutzera gonbidatzea.

Zein izango dira hurrengo pausoak?

Herritarrek identifikatzea eta esku hartzea.

Nora jo dezakete modu batera edo bestera parte hartu nahi duten herritarrek?

Nigana, 688-76 42 97 zenbakira deituta edo herriabidelagun@legorreta.eus helbidera idatzita. Edozein galdera erantzuteko prest.



Berrikuntzak bizikleta parkean

Obrak egin dira bizikleta parkean: besteak beste, zirkuitua txukundu, ura drenatzeko sistema bat jarri eta ibilbideak seinaleztatu. Hainbat hobekuntza egin dira pumptrack eremuan eta salto gunean.

Urtebete da Xendapedalak bizikleta parkea ireki zela, eta denbora honetan ehunka herritarrek eta bisitariek erabili dute. Azken asteetan hobekuntza batzuk egin ditu udalak, parkea ahalik eta erabilgarriena izan dadin. Asmoa da, izan ere, parke zaindua izatea herritarren eta bisitarien esku, Euskal Herrian erreferente dela kon-tuan izanda.

Egindako obrekin zirkuituko ibilbide osoa txukundu da, batez ere ibai ertzeko zatia. Eremu osoan ura drenatzeko sistema bat jarri da, eta, horrekin batera, seinaleztatu egin da parkeko ibilbidea, lau kolore-rekin, zailtasun mailaren arabera: berdea, urdina, gorria eta beltza. Panel batzuk ere jarri dira parkean, kolore horien esanahia eta erabilera arauak azaltzeko. Gainera, segurtasun sareak eta posteak ere jarri dira.

Obra horiek baliatuz, zirkuituko bi eremu-tan berritasunak txertatu dira. Alde batetik, pumptrack eremua handitu egin da, eta ibilbidearen herena inguru da orain; sarreratik gertu irteera bat jarri da, eta pumptrack zirkular bat sortu da, bi metroko altuerako irteera batekin. Bestetik, egokitzapen batzuk egin dira salto gunean: orain arte zeuden saltoak egokitu egin dira —txikientzat saltoak erraztu, eta handientzat hobetu—, sarrera-irteerak zabaldu, eta beste salto handi bat ipini.

Egokitzapenak egiteko obrek 20.000 euroko kostua izan dute, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduko du. Parkea egiteko lehen fasea ere lagundu zuen diputazioak, Euskal Herrian erreferente baita Legorretako parkea, lehenengo bizikleta parke urbanoa.

Ehunka lagun ari dira erabiltzen parkea, eta udalak hainbat ikastaro antolatu ditu urtebete honetan. Uztaillean bertan, adibidez, hiru asteko ikastaroa izan da, hiru mailatan: has-tapena (6 urtetik gora), XC maila (10 urtetik gora) eta enduro (12 urtetik gora). Guztira, 34 ume eta gazte txok parte hartu dute. Datorren ikasturtean ere izango da ikastaro gehiago.



Novedades en el parque de bicicletas

Hace un año que se inauguró el parque de bicicletas Xendapedalak, y durante este tiempo ha sido utilizado por cientos de legorretarras y visitantes. En las últimas semanas el Ayuntamiento ha realizado una serie de mejoras: se ha adecentado todo el recorrido del circuito, se ha instalado un sistema de drenaje de agua, y se ha señalado el recorrido del parque con cuatro colores en función del grado de dificultad. Además, se han colocado redes de seguridad y postes.

Mediante esas obras también se han introducido algunas novedades en dos áreas: se ha ampliado la zona de pumptrack y se han realizado algunas adaptaciones en la zona de salto, adecuando los saltos existentes y colocando otro gran salto.

El coste de las obras ha sido de 20.000 euros y será subvencionado por la Diputación Foral de Gipuzkoa. La Diputación también colaboró en la primera fase de la construcción del parque, que es referente en nuestro entorno.

El Ayuntamiento ha organizado varios cursos. Por ejemplo, durante el mes de julio se ha realizado un curso de tres semanas en tres niveles, donde han participado 34 niños y niñas. El próximo año también habrá más cursos.



Argia LGTBI+

herritarren errealitateari

Legorretako LGTBI+ pertsonen errealitateari buruzko diagnostikoa osatu du udalak. Proiektu aitzindaria da, lehen aldia baita Legorretaren gisako herri batean horrelako analisi bat egiten dena. Udal politiketan herritar horien errealitatea aintzat hartzeko lehen pausoa izan da.

Udalak *Bizigarri* izeneko diagnostikoa aurkeztu zuen joan den ekainaren 17an: Legorretako LGTBI+ herritarren errealitateari buruzko azterketa. Sudergintza eta Hiruki Larroxa kooperatibak aritu dira diagnostikoa lantzen, eta, horretarako, Legorretako hainbat LGTBI+ pertsonarekin hitz egin dute, haien testigantzen bidez analisisa osatzeko. Herriko hainbat eragilerekin ere landu dute diagnostikoa.

Proiektuak 2020an du jatorria. Ordura arte, ekainaren 28an ohiko adierazpena argitaratzen zuen Legorretako Udalak, LGTBI+ pertsonen ikusgarritasunaren harira. Urte hartan, ordea, konpromiso bat hartu zuen udalak: LGTBI+ pertsonen eskubideak urte osoan bermatzeko konpromisoa. Horri tiraka, 2021eko ekainean martxan jarri zuen diagnostikoa egiteko prozesua.

Azterketan sei eremuri erreparatu diete: espazio publikoa, aisialdia, sexiltoa, hezkuntza, osasuna eta lana. Azterketa aitzindaria izan da, lehen aldia baita Legorretaren gisako herri txiki batean LGTBI+ pertsonen buruzko diagnostiko bat egiten dena. Emakunderen laguntza jaso du ikerketak.

Diagnostikoaren ondorio nagusiak argitalpen batean bildu ditu udalak, eta udaletxean eskura daitezke.

Udalaren asmoa da diagnostikoa oinarri gisa hartzea bere politika guztietan zeharkakotasun handiagoz jokatzeko, baita LGTBI+ pertsonen errealitatea hobetzeko politika zehatzak egiteko ere.



Luz a la realidad de las personas LGTBI+

El Ayuntamiento presentó el pasado 17 de junio el diagnóstico *Bizigarri*, un análisis de la realidad de los y las legorretarras LGTBI+.

El proyecto tiene su origen en el año 2020. Ese año, el Ayuntamiento se comprometió a garantizar los derechos de las personas LGTBI+ durante todo el año. En junio de 2021 puso en marcha el proceso de elaboración del diagnóstico.

El estudio se ha centrado en seis ámbitos: espacio público, ocio, sexilio, educación, salud y trabajo. El estudio ha sido pionero, ya que es la primera vez que en un pequeño pueblo como Legorreta se realiza un trabajo de estas características.

Las conclusiones se recogen en una publicación que se encuentra disponible en el Ayuntamiento.

La intención del Ayuntamiento es tener una mayor transversalidad en todas sus políticas y elaborar políticas concretas para mejorar la realidad de las personas LGTBI+.

95.000 euroren laguntzak, herria garatzeko

Udalak hainbat egitasmo jarri ditu martxan 2022an, eta erakunde handiagoen ekarpenak jaso ditu dirulaguntza lehiakorren bidez; besteak beste, eguneko arreta zerbitzurako, frontoian eguzki plakak jartzeko eta hirigintza plan berrirako parte-hartze prozesurako. Egitasmo gehiagok ere jasoiko dute laguntza datozen hilabeteetan.

Legorreta 2030 plan estrategikoa lantzea izan da agintaldi honetako jomuga nagusietako bat. 2021ean onartu zen plana, herritarren parte-hartze zabalarekin, eta plana garatzeko hainbat egitasmo martxan jartzen ari da udala. Proiektu berriak dira, berritzaileak, eta beste erakunde batzuen interesa sortzen ari dira. Datu bat: Legorretako Udalak aurten erabiltzeko 95.000 euro baino gehiago jaso ditu jada beste erakunde batzuen dirulaguntzetan, eta espero du datozen hilabeteetan laguntza gehiago iristea.

Dirulaguntza horiek deialdi lehiakorren bidez iritsi dira: hau da, udalak bere egitasmoa aurkeztu du dagokion deialdian, eta lortutako puntuazioaren arabera laguntza jaso du. Laguntza horiek eskuratzea erronka da udalarentzat, beraz: proiektuak ondo landu behar dira, eskaerak eta memoriak egoki prestatu, eta behar bezala garatu.

Proiektu batek jaso du laguntzarik handiena: eguneko arreta zerbitzuak eta ba-

kardadeari aurre egiteko estrategiak. Arreta zerbitzua martxan dago maiatzaz geroztik, bakardadeari aurre egiteko proiektua ere hasi da lanean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak guztira 48.000 euroko laguntza onartu du —horietatik 10.000 euro datorren urtean iritsiko dira—.

Bi proiektuk jaso dute zenbateko esanguratsua. Batetik, udalak asmoa du frontoian autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaiako bat jartzeko; egitasmoak 50.000 euroko aurrekontua du, eta 20.000 euroko laguntza lortu da Gipuzkoako Foru Aldunditik. Bestetik, martxan dago hiri antolamenduko plan orokorra berritzeko prozesua, eta parte-hartze prozesua abiatu da; 17.000 euroko gastua da, eta 10.000 diputazioko laguntzetatik jaso dira.

Honako hauek izan dira gainerako laguntzak: mugikortasun plana egiteko, 9.600 euro (Energiaren Euskal Erakundetik); LGTBI+ diagnostikorako, 5.445 euro (Emakundetik); Oria ibaia garbitzeko, 4.950 euro (aldunditik); energia kontsumoa kontrolatzeko sistemarako, 3.880 euro (aldunditik); eta haur eta nerabeen partaidetzarako, 3.600 euro (aldunditik).

Beste egitasmo batzuk ere lantzen ari da udala, eta horietarako ere espero du laguntza. Honako hiru proiektu hauetarako: udal kartografia hobetzeko; hiri antolamenduko plan orokorra lantzeko; eta bizikleta parkea hobetzeko.

Ayudas de 95.000 euros para el desarrollo local

El Ayuntamiento está poniendo en marcha diversos proyectos para desarrollar en plan Legorreta 2030. Son proyectos nuevos, innovadores y están despertando el interés de otras instituciones. El Ayuntamiento ya ha recibido este año más de 95.000 euros en subvenciones, y espera recibir más ayudas.

Estas subvenciones han sido obtenidas mediante convocatorias competitivas; es decir, el Ayuntamiento ha presentado su proyecto en la convocatoria correspondiente y se le ha concedido una ayuda en función de la puntuación obtenida.

La mayor subvención la ha recibido el servicio de atención diurna y la estrategia para afrontar la soledad. La Diputación Foral de Gipuzkoa ha aprobado una ayuda por importe de 48.000 euros, de los cuales 10.000 euros llegarán el próximo año.

Otros dos proyectos que han recibido una cuantía importante son los siguientes: una instalación fotovoltaica para autoconsumo (20.000 euros) y el proceso de participación para renovar el Plan General de Ordenación Urbana (10.000 euros).

El resto de ayudas han sido las siguientes: 9.600 euros para elaborar el Plan de Movilidad; 5.445 euros para el diagnóstico LGTBI+; 4.950 euros para la limpieza del río Oria; 3.880 euros para el sistema de control del consumo energético; y 3.600 euros para la participación de niños y niñas y adolescentes.

El Ayuntamiento está trabajando en otros proyectos para los que también espera subvenciones: mejora de la cartografía municipal, elaboración del plan general de ordenación urbana y mejora del parque de bicis.

Harremanak josten

Ikasturte osoan zehar jostkintza tailerrean elkartu dira jatorri ezberdineko sei emakume, elkar ezagutzeko eta pixkanaka udal eta herri mailako ekintzetan parte hartzeko asmoz. Ana Rosa Agirre aritu da irakasle lanetan, boluntario moduan, eta oso esperientzia aberasgarria izan da denentzat. Udalaren asmoa da halako egitasmoak bultzatzea, herritar guztien partaidetza eta emakumeen ahalduntzea helburu hartuta.

Durante todo el curso se han reunido en el taller de costura seis mujeres de diferentes procedencias, con la intención de conocerse y participar poco a poco en actividades municipales y populares. Ana Rosa Agirre ha sido la profesora, quien ha desempeñado un trabajo voluntario, y ha sido una experiencia muy enriquecedora para todas ellas. El Ayuntamiento pretende impulsar este tipo de proyectos con el objetivo de la participación de toda la ciudadanía y el empoderamiento de las mujeres.

